

Badira hiru urte Donostiako tabako fabrika izandakoaren eraldaketa hasi zela. Eraldaketa formala, berrikuntza arkitektonikoari dagokiona, eta baita emango zaion erabilerari dagokiona ere. 2015eko udan, berriz ere eraikineko ateak zabaltzea aurreikusten da, Kultura Garaikideko Nazioarteko Zentro bilakatuta.

Makina bat gairi heldu behar izan diogu irekiera aurreko epe honetan. XX. mende hasierako izaera industrialeko eraikin baten eraldaketak berak hainbat auziren aurrean jarri gaitu: ondarearekin lotutako gaiak, errepresentazioarekin lotutakoak edo baita sinbolikoak ere. Aurkitu dugun beste zailtasun bat egoitzarik eduki gabe jarduerak programatzen hasi beharra izan da, horrek deslokalizaziora eraman gaituelarik. Hori dela eta, espazio publikoaren inguruan eta espazioaren aldi baterako erabileraren inguruan hausnartzeari ekin genion.

Kontu horien guztien gainean gogoeta egin asmoz, Tabakaleratik gonbita luzatu genien Ibon Salaberria eta Manu Fernándezi, 2013ko arkitektura astearen harira proposamen bat egin zezaten. Hiriaren inguruko politikak abiapuntutzat hartuta, hainbat esperientzia praktiko eta planteamendu teoriko aurkeztu ziren, hiri despolizatu batean ekoizpen kritikorako espazio berriak sortu asmoz.

Jardunaldi horien emaitza da argitalpen hau, eta era berean, 2014ko jardunaldiekin lotura egiteko ere balio du. 2014ko jardunaldietan hiriaren kudeaketa logika komunitarioetatik abiatuta aztertuko dugu.

Ane Rodríguez Armendariz  
Tabakalerako kultura zuzendaria



# HIRIA BESTE POLITIKA BATZUEN ARTEAN

- 7 ARKITEKTURA POLITIKA DA
- 11 ARKITEKTURA, IMAJINEN BIDEZ: IRUDIKATUTAKO HIRIA
- 15 ERABATEKO MONUMENTA-LIZAZIORANTZ
- 16 HIRIA KONTROLATZEA
- 17 HARRESIAK ETA MUGAK
- 19 ESPERIENTZIAREN DEUSEZTAPENA
- 21 ESPAZIO PUBLIKOAREN BIR-JABETZEA
- 24 ARKITEKTURA BIRPOLITIZATZEA
- 25 IRUDIKAPENAREN AURKA, PERFORMANCE LABURRA
- 27 NOSTALGIA, GUZTIAREN AZPITIK

2013ko urrian, Tabakalerako arkitekturaren astearen baitan, hainbat hitzaldi, eztabaida eta lantegi antolatu ziren, «Hiria eta bestelako politikak» izenburupean<sup>1</sup>.

«Hiria eta bestelako politikak» ekimenaren hasierako planteamenduaren helburua hiri ekoizpenak izan duen deriba merkantilista agerian uztea zen.

Argudio teknokratiko eta sozio-zientzia berrien bitartez, hiri prozesuen inguruko erabateko despolitizazioa gertatzen ari da eta emaitza bezala bizitza estandarizatuetaako lurralde produktibo bat besterik ez da ageri.

Egunerokotasuna desjabetu zaie bizi ditugun espazioei, politika desagertu da, eta ondorioz benetako esperientzia erreala bizitzea ukatzen zaigu.

Lurraldeak kontsumo-espazio izatera mugatzen dira; politika estetizatuek zuzendutako marketin-estrategien eta haien parafernalien arabeko kontsumo-espazioen irudikatzea besterik ez dira bihurtu.

«Hiria eta bestelako politikak» ekimenaren egitaraua garatzerakoan, «adituen» jarrera eta begiradek bultzatutako plangintzaren aurrean, txikitasuna lehenesten duten lan moldeak berreskuratzen ahalegindu gara. Hiria egiteko eta hari buruz pentsatzeko modu desberdinak eztabaidatu nahi genituen, politika eta hiriko esperientzia presente izanda, mozrorrik edo aitzakia produktibistarik gabe. Hiriko ekintza txikien bidez, egunerokoak, benetako politikak eta pertsonen diziplina arkitektonikoa zeharkatzen dute. Gure ustez, lanbidea zorretan dago benetako hiriarekin, Jill Stoner-ek *Toward a minor architecture* liburuan azaltzen duen moduan<sup>2</sup>:

«Diziplinak oraindik ere iraunarazten ditu barneko eta kanpoko espazioaren arteko dialektika, eraikin-ekoizpena eta arkitektoaren asmo heroikoak, botere korporatiboaren eraginen eta nahien zerbitzura; arkitekturaren hizkuntza nagusia kapital sinbolikoak menderatutako kultura bateko beste produktu bat da. Haren konbentzioak ajetasunaren amildegian kulunkatzen dira, eta horrek itxuraz arrotza den proposamen batera eramaten gaitu: arkitektura ezin da eraikinak egitearen bilaketa estetikora mugatu; orain, eraikinak selektiboki desegiteko politika batekin konpromisoa hartu behar du».



El Lissitzky. Entrance of the USSR pavilion. Pressa azoka, Kolonia. 1928.

# ARKITEKTURA POLITIKA DA

Arkitektura mugatzeko, bereizteko, mugak sortzeko, hormak eta harresiak eraikitzeko gai da. Arkitektura, gainera, botere ekonomikoen, lobbyen edo garapen hiperkapitalista izaten ari diren estatuen mende jartzeko gai da, kritikarako aukerarik eman gabe, azken urteetan egin duen moduan.

Jean Pierre Garnier<sup>3</sup> soziologo eta hirigile frantsesak zalantzarik gabe dio arkitektura agente-ikur bat dela. Contra los territorios del poder<sup>4</sup> liburuan, hirigintzak eta arkitekturak estatuekin eta botereekin dituzten harremanak aztertzen ditu. Liburuko paragrafo batean, Benoit Goetz egilearen aipu bat jasotzen du:

«Arkitektura boterearen irudikapen nabarmena baino gehiago da; agintzearen artearen jatorrian dago. Arkitektura tresna gisa erabiltzen du botere orok».

Jardunaldien prestaketan, hiri garaikidea deriba merkantilistaren ebidentzian oinarrituz aztertzeko asmoz hainbat autore eta garai historiko landu ziren. Hala ere, agerikoa zen munduko hiri askotako plazetan berriki izandako protestek 1960ko eta 1970eko hamarkadetan gertatu zenari begiratzera eta hura erreparatzera behartzen gintuztela. Dena dela, zenbait ahotsek zalantzan jarri zuten protesta orokortuen balio birpolitizatzailea. Testuinguru teoriko konparagarri batean, 1960ko eta 1970eko protesta eta deriba formalak liburuetan artxibatu edo museoetan gorde ziren, elite intelektualek gauzatutako esperientzia utopiko gisa.

Eta Pier Vittorio Aureli arkitektoak, Italiako arkitektura erradikalari buruzko *More money/Less work: Archizoom*<sup>5</sup> azterlanean, gogorarazten duen moduan, kultura arkitektonikoko proposamen erradikalen muga zenbat eta gorago egon, orduan eta hobeto aurreikusten da kapitalismoaren garapenaren hurrengo zikloa.

Bestalde, Jean Pierre Garnierrek protesta horietatik datozen teoriko erradikal askoren jarrera akademizista kritikatzeko du, benetako praktika politikoez harago, «hiri eskubidea» eta halako beste goiburu batzuk berreskuratzen dituztelako «teorizismorako» objektu gisa. Izatez, arkitekturak boterearekin duen lotura lasaitzeko aukera zalantzan jartzen du Garnierrek:

«Arkitekturak eta anarkiak a priori antinomikoa ez den harremanik izan al dezakete? Arkitektura, jatorriz, agintearen mende dagoela esatea ez da beste mundukoa; horren frogara da jainkoak ohoratzen dituzten tenpluak, botereetsuak babesteko jauregiak edo tiranoak goresketako monumentuak eraiki izana. Ez dago zalantzarik arkitektura agintearen ikur bat dela».

8 Garnierren testuek arkitekturarekin ziklikoki gertatzen dena eta espazioen eta bizitzeko «erregulatuak» gisa «jarduteko» duen modua lehen arreta-gunetzat hartzen dute.

Halaber, jardunaldietara gonbidatutako Alvaro Sevilla<sup>6</sup> arkitekto-hirigileak bere artikuluetan nabarmentzen duenez, hiriak, pixkanaka, esperientzia urbanoa galdu du. Egunerokotasuna, eta, azken finean, banakako eta taldeko esperientzia ordezkatu egin direla azaltzen du: «Mende erdia baino gehiagoan, kuantitatiboki nagusia zen biztanleria-mailak bere lan-, ostatatze- eta kontsumo-patroiak errotik aldatu zirela ikusi zuen –hots, gizarte-ekoizpenekoa eta -ugalketakoa–. Horren ondorioz, “jendetzako gizona”, Poe-ren izen bereko kontakizunetan bezala, burgesiarentzat gatazkatsua izan zitekeen arrotza, “ulertzeko aukera ematen ez duena” –“bestea”–, gizabanako txepela, geldoa eta konformista bihurtzen da, protesta egiteko ezgai».

Hortaz, iraganeko esperientzia eta uneak berreskuratzea nahi genituen, berriz ere horietan arakatzeko eta egiaztatzeak ea orain aipatzen diren alderaketetatik politika berriak sor daitezkeen edo besterik gabe hiri-estetika berriak irudikatzen dituzten.

Azken hamarkadetan, arkitektoa, hein handi batean, makineria produktibistaren pieza gisa deskriba genezake edo, zenbait kasutan, hiri-ehunak suntsitzeko eta lurraldea deformatzeko politika kaltegarrien aliatu gisa.

Arkitektoak gure ingurua eraikitzeke politiken aurrean daukan jarreraren berrikuspen sakona egiteko premia dago. Jardunaldietan, hainbat jarrera entzun ahal izan ziren, hala nola n’Undo<sup>7</sup> taldearena. Talde honek proposatzen du uko egiteke jarrera eraikitzaile bat sortzen dela, erreakzio kultural bat alegia. Bere ikuspegitik, ez eraikitzea, minimizazioa, berrerabilpena edo eraispena arkitektura iraunkorra egiteko estrategiak dira.

Gaur egun, zenbait forotan (akademikoak nahiz informalak), arkitektoaren neutraltasuna kritikatzeko da. Hirigintzaren edo hiri-egitearen abiapuntua politikoa dela onartzen badugu, arkitektoaren jarrera sakon berrikusi behar da arlo estetiko soiletatik salbatzeko.

Zaida Muxí eta Josep Maria Montaner egileek berriki *Arquitectura y política*<sup>8</sup> liburua argitaratu dute. Liburu horretan, hiriaren ekoizpenaren jatorria boterearen eta estatuen arteko aliantzaren oinarrituta dagoela azaltzen dute, modu ulerterrazean.

«Bidezkoa da arkitektoek proiektatu eta eraiki ahal izateko edozein baldintza onartzea? Onargarria da 2008ko Olinpiar Jokoetarako Pekingo parkea eta estadioa, Herzog&de Meuron-en eta Ai Weiwei artistaren “habia” deiturikoa barne, egin ahal izateko soilik eremu horretan bizi ziren 350.000 bizilagun lekualdatzea eta metropoliaren kanpoaldera eramatea? Hori guztia erresistentzia handirik gabe egin ahal izan zen, Txinan hirigintza eta higiezinaren arloko operazio handi horiek egiteko tresna politiko tiranikoak izateaz gain, ideologia higienista bat ezarri baita. Pentsamendu horren arabera, auzo tradizional baxuak (hutong-ak) sakrifikatu eta deuseztatu egin behar dira, berritzeko eta modernizatzeko beharrezko operazio aberkoia delako».

Muxí eta Montanerren saiakeran, arkitekturak botereekin izan duen posizionamendu historikoaren aurrean jarrera-katalogo berri bat agertzen da. Orain, botere horiek erresistentzia-mugimenduak eragiten dituzte; hiriaren eraikuntza irudi soil batetik harago doazen prozesu eta begiradetatik jorratzen dute.



Road to Victory, Herbert Bayer Bauhaus-eko diseinatzaileak Chicagoko arte institutuan komisariatua. 1943.



Sobietar Batasuneko eraikuntzako langileak pertika batean muntatutako etxebizitza eredu berrien unitate modernistekin desfilatzen. 1931.

# ARKITEKTURA IMAJINETAN: IRUDIZTATUTAKO HIRIA

Erabilgaitzen ekoizpen-merkatuaren legeek Mendebaldeko gizarteari eta bere lurraldearen eraikuntzari presioa egin diete (eta egiten jarraitzen dute). Eta etengabeko produktibismoarekin jarraitzeko ahalegin etsi batean, aurreranzko ihesaldi gisa, etengabe erabilgaitzak kontsumo-kanpaina burutsuetan «paketeak egiteaz» arduratzen diren subjektu sortzaileak, publizistak eta marketineko adituak sortzen dira.

Martí Peran egileak, *After architecture*<sup>9</sup> liburuan, ezin hobeto deskribatzen du azkenaldiko deriba:

«...Irudiaren logikaren garaipenaren atarian gaude dagoeneko; laurogeiko hamarkadaz geroztik bete-betean gertatzen ari da hori, hiriak eurak kontsumo-objektu bihurtzearen eta bidaia-agentzia handizkarien merkatu handian skyline lehiakorra eskatzearen ondorioz».

Peran «Hiria eta bestelako politikak» jardunaldietako hirugarren egunean izan zen. Haren testuetan azpimarratzen duenez, arkitektura nagusiak botere-egituren aurrean amore eman du eta ideologia menderatzailetik eratorritako balioen publizitatea egiteko irudi inposatu bihurtu da.

Arkitekturak irudiaren hizkuntzari men egin dio. 2008an, Macba fundazioak «dokumentuaren zerizana eta utopia fotografiko modernoa»<sup>10</sup> gaia landu zuen. Egindako errepasso historikoan, arteak, irudiak eta arkitekturak garai bakoitzeko botere politikoekin eta estatuarekin izan duten harremana nabarmendu zen.

«El Lissitzky artistak 1928 eta 1930 artean diseinatutako argazki-erakusketek iraultza sobietarraren garaiko haustura epistemologikoetan ainguratutako paradigma bat ezarri zuten, "ikuspegi berri" baten nozioak.

Paradigma hori Mendebaldeko Europan zabalduko da Bauhausen bidez, eta hogeita hamarreko hamarkadan, Italiako eta Alemaniako erregimen faxista berrietarako tresna bat izango da; ondoren, Ameriketako Estatu Batuetan berregin egingo da, Bigarren Mundu Gerraren eta Gerra Hotzaren testuinguru propagandistikoan.»

Hainbat garai historikotan, artistak egile izateari uzten dio eta ekoizle «aliatu» bihurtzen da.

Lissitzky argazkitik erakusketa-muntaiara igarota zen, publikoarekin komunikatzeko beste modu baten bila.

Herbet Bayer artistak ezagutzen zuen Lissitzkyren lana eta erakusketa komunikatzeko bide bihurtzen zela ulertu zuen. Hitler boterera iristean, metodo horiek praktikan jarri zituen, nazionalsozialismoaren publizitate-makinariaren eskuetan. Goebbelsek berak haxe esaten zuen aipatutako erakusketei buruz:

«Banakako esperientzia herriaren esperientzia bihurtu da, kamerari esker».

Bertako gauzekiko estimua sortu nahi zen, masak politikekin eta estatuaren eraikuntzekin lotu. Ondarea eta estatua bereizezinak ziren, eta, horrela, alegiazko gidatu berri bat eraikitzen zen.

Alegiazkoa eta ondarea monumentalizatzeko premiapean definituta zeuden.

2014ko otsailean, The Funambulist<sup>11</sup> plataformak Gastón Gordillo<sup>12</sup> antropologo argentinarren Nazi Architecture as Affective Weapon artikulua argitaratu zuen. Artikulu horretan irudikatzen denez, Sobietar Batasuna eta Hitler berehalako monumentuen eraikuntzan lehiatzen ziren, arkitekturaren bidez boterea erakusteko lasterketa moduko batean. 1941ean, Hitlerrek Sobietar Batasuna inbaditzeko agindu zuenean, Speer (bere arkitektoa) Sobietarren jauregiak Hitlerrengan izan zuen eraginaz jabetu zen. Alemaniako tropak Moskura bidean aurrera zihoazela, Hitlerrek haxe esan zuen:

«Azkenean eta betirako, hau izango da beren eraikinaren amaiera».

Irudia nagusitu da arkitekturaren azken hamarkadetako bilakaeran, beste begirada moduen gainetik. Egoera hori estatu eta erakunde aliatuek gauzatutako merkaturatzearekin estuki lotuta dago.

Arkitekturako irudiak kontsumitzen ditugu eta argazki arkitektonikoaren ugaritasunak eta etengabe «ikuskitzen bihurtzeak» pausa kritikorik gabe

uzten gaitu. Badirudi arkitekturaren irudiak bide bera hartu duela eta arkitekturaren beraren «estetizazio» erradikalaren formula berberak hartuz produktu «imaginario» bihurtu dela.

Gaurkotasun gisa saltzen den irudien gaindosia; mozorroa, azala edo organorik gabeko gorputza garaikidetasun absolutu gisa.

Eta Boris Groysen dioen moduan, modernitatearen baldintzapean artelan bat ekoizteko eta publikora helarazteko bi modu daude: merkantzia gisa edo propaganda politikoko tresna gisa.

1890 eta 1920 artean, arkitekturaren argazkiak arlo akademikoetatik publiko orokorreko argitalpenetara jauzi egin zuen, arkitektura berriaren bidez banakakoa eraldatzeko ahaleginean. Beatriz Colominak<sup>13</sup> arkitektura modernoa masak komunikatzeko bidetzat hartzen du:

«Loosek arkitektoen inguruan egindako salaketa gogorrek interesa pizten zidan. Loosen arabera, beren burua arkitektura-aldizkarietara saltzen diete eta beren arkitektura eraldatu egiten dute, aldizkarietan polit agertzeko. Loosek Hoffmannen arkitektura kritikatu zuen, haren proiektuak bi dimentsiokoak zirela esanez. Aldiz, Loosek aldarrikatu zuenez, bere arkitektura ezin zen balioetsi aurrez aurre ikusi ezean».

Une horretan, arkitekturaren argazkilaritza-lana dokumentu-praktikatik aldendu zen, esperientziaren praktikatik, eta kontsumorako edo propagandarako irudi soil bilakatu.

Hortaz, arkitekturaren eta argazkiaren edo irudiaren arteko aliantza, marka-produktu gisa, XX. mendearen hasieran abiatu zela eta gaur egun amaitzen dela esan dezakegu, hiriek beren buruak turismo-liburuxketan edo ongi-usteko ekitaldi politikoetan marka-produktu gisa irudikatzen dituztela. Irudikapenean bakarrik oinarritutako gizartea sustatzen da.

«Gauza» guztien irudikapenak bizileku ditugun espazioak esperimendatzeko aukera baliogabetzen du, benetakoa ezkatuz errealitate gidatuak simulatzen ditu. John Bergerrek maisukiro laburtu du: «Demagun bat-batean mundu materialak, substantzialak (tomateak, euria, txoriak, harriak, meloiak, arrainak, aingirak, termitak, amak, zakurrak, lizuna, ur gazia) hari buruz gezurra esaten duten irudien korrante agorrezinari kontra egiten diola. Demagun erreakzionatu egiten duela eta bera gramatikalki, digitalki eta pikturikoki manipulatzeari uzteko aldarrikatu duela; imajina dezagun irudikatutakoaren matxinada bat».<sup>14</sup>



Galaxy Soho. Beijing. Argazkia: Hufton+Crow, Zaha Hadid Architects.



Igmann François Bonhommé, Prise de la barricade du Petit Pont (1848).  
Saint Denis-eko arte eta historiako museoa. Film negatiboa: I; Andréani.

# ERABATEKO MONUMENTALIZA- ZIORANTZ

Irudikapenak gure hirien eta komunitateen memoria ere zeharkatzen du. «Aurrekoa» irudietan artxibatuta geratzen da, «interpretazio-zentro» errepikari eta ergeletan edo, kasurik onenean ere, azal-erakin momifikatuetan.

Argi dago ondarearen ideia eraikitako objektuaren begirada estetiko zehatz batekin lotuta dagoela. Hiriak eta lurraldeak kontsumo turistikoko marka bihurtzeko lehiatzen diren modu berean, oinordetutako euskarria «argazkietan jaso daitekeen» kontsumo-objektu bilakatzen da. Horrela, ondareztat hartu dugun objektua hilda geratzen da, baltsamatuta, malenkonia sortzeko eta iraganeko memoria ahultzeko.

Irudiaren hegemonia berriz azpimarratzeko beste modu bat besterik ez da. Azken hamarkadetan estetizazioak eta ikuskizun «optiko» bihurtzeak hiriaren eta haren oinordetzaren benetako alderdien bitartekari eta «hustutzaile» gisa izan duen garrantzia azpimarratzeko beste modu bat. Ondareari buruzko politikak formak eta memoriak monumentalizatzen dituzte, turistikoki bihur daitekeen oro.

Patrimonializazio-prozesuek arkitektura turismo-industriarako kontsumo produktu bilakatzen dute. Berlingo harresia horren adibide argia da. Oso urrun ez dagoen garai batean indarkeriaren eta heriotzaren agertokia izan zena, gaur egun, errealitaterik gabeko elementu sinboliko gisa erakusten da. Elisabeth Roigek honela deskribatzen du *The Walls of empire*<sup>15</sup> lanean: «Gaur egun, Berlingo arkakuso-merkatuan, Spree ibaiaren ondoan, huskeria baten prezioan erakusten dira Ekialdeko Europako militarren intsigniak. Igitaiaz eta mailuaz lagundutako izar gorriak kapitalismo garaile baten garaikur gisa erakusten dira. Gainera, turistei harresi faltsu baten pusketak saltzen zaizkie posta-txarteletan, eta 1961etik 1989ra harresia zeharkatzeko ahaleginean hil ziren 80 pertsonak lore-apaingarriekin gogoratzen dira.



Berliner Mauer eraikuntzatik iraunarazi den zati bat Gestaporen eraikin nagusiaren oinarrietatik geratzen denarekin batera dago, hurbiltasun arkitektonikoagatik nazismoa eta komunismoa "bat" eginda. Eta kalean soldadu iparramerikar baten argazki handi bat dago zintzilik, Checkpoint Charlie ospetsua irribarre zabal batekin "argitzen", noski, turistari Berlingo mendebaldeko sektorerako ongietorria eginez...».

Monumentuak nostalgia kolektiboa sortzeko eta benetako egoerak ezin konponduzko eran bideratzen edo mozorrotzen dituzten artificio historikoak eraikitzeko ahalmena dauka. Ondarearen kontzeptuak eraikitako oinordetzaren «artealizazio» ahalegin horiek babesten ditu. Horien irakurketa marka turistikoaren forma hartzera bideratuta dagoen objektuaren ikuspegi estetiko jakin batekin lotuta dago. Horrela, ondareztat hartu dugun objektua hilda geratzen da, baltsamatuta, malenkonia sortu eta iraganeko esperientziaren memoria ahultzen du.

Hortaz, turismoaren eta monumentuen premiaren artean, hiriak gerra agertokia baten forma hartzen du. Turistek, soldadu gisa, hiriak gune «seguruetatik» zeharkatzen dituzte, beren argazki-kameren memoriarako irudi iragankorrak hartuz.

Nola turismoa hala monumentalizazioa hiria kontrolatzeko tresna eraginkor bihurtzen dira.

## HIRIA KONTROLATZEA

Partekatutako espazioak modu askean erabiltzeko aukeraren erabateko galera iragartzen duten zantzu argiak daude; espazio komunak espazio kontrolatu bihurtzen ari dira eta gure «hirirako eskubidea» galarazi besterik ez dute egiten. Beldurraren propaganda nagusitzen ari da, eta hiri-esperientzia azkenetan dago.

Bien bitartean, unibertsitate-eskolek arkitekturaren historia garai bakoitzeko estiloen, formen eta gaitasun teknikoaren kontaketa lineal gisa erakutsi dute.

Arkitektura-eskoletan, une historiko bakoitzean nagusitutako botereen handitasuna irakasten eta kontatzen duten liburuak jasotzen ditugu. Eta mundu akademikoak arkitektura irakasteko eta prestakuntza emateko modu gisa onartzen du oinordetza hori.

Gertuko historiak irakasten digu erregimenek, gerra-egoerek edo ongi-usteko estatuek arkitektura propaganda tresna eta kontrolatzeko dispositibo gisa erabili izan dutela eta erabiltzen dutela, hiriko bizitzaren estandarizazio-gailu gisa, alegia. Politika estetizatu eta arkitektura propaganda bihurtzen da.

Arkitektura gauza bihurtzeak (baita fetitxe bihurtzeak ere) beste alderdi ukiezin batzuk alde batera utzi ditu, hain zuzen, partekatu daitezkeen espazioak sortzen dituztenak, modu ez-aldebakarrekoan politizatutako lurraldeak.

Espazio urbanoekin eta hiriarekin lotutako kontrolari eta dispositiboek dagokienez, Esteban Zamora<sup>16</sup> izan zen horri buruz hitz egin zuen lehena, «Hiria eta bestelako politikak» ekimeneko egitarauaren baitan.

Estebanek hiriko espazioaren eta lurraldeen osaketaren inguruko ibilbide bat proposatu zuen; ez bairik gabe indarkeria-formekin eta gerrarekin lotzen duen ibilbide bat.

Hitzaldiaren hasieran, dispositibo «espazializatzaile» guztiek gure bizitza harrapatzearekin zerikusia dutela adierazi zuen. Bi paradigma nagusi erabili zituen mugen eta lurraldeen errepassoa egiteko, eskala globaletik hiri-eskalara: panoptikoa eta kartzela.

Panoptikoa, Estebanen ikuspegitik, ez da dispositibo arkitektoniko bat soilik, makina erlazional bat baizik, eta, zaintzailerik izan edo ez, presoak bere jarrera kontrolatzen duen mekanismoa barneratzen du.


Estebanen arabera, mekanismo horiek pertsona bera bere zapalkuntzaren eragile bihurtzen dute.

## HARRESIAK ETA MUGAK

Saharaz hegoaldeko mundua banantzen duen harresia, Israelen eraikitako harresia, AEBak eta Mexiko bereizten dituen harresia eta Europak eraiki



Tijuanako muga

Exodus, or the Voluntary Prisoners of Architecture: The Reception Area, 1972  
Rem Koolhaas eta Elia Zenghelis, Madelon Vriesendorp eta Zoe Zenghelis-ekin.

duen alegiazko harresia, hegoaldeko muga deiturikoa, pertsonentzako mugak dira, baina merkantziatarako ez dute inolako oztoporik ezartzen. Estebanek adierazi duenez, «muga metropolian barneratu da, hiri-eskalan». Bartzelonako kasua adibide gisa jarri zuen, non etorkinen bizileku diren gunek periferikoak, puntako orduetan, check point-ek beteta dauden. Hiri batean check point bat egoteak muga barneratu egin dela esan nahi du. Estebanek gogorarazi duenez, alderdi horrek ahalbidetu dio Zygmunt Bauman soziologoari gaur egungo lurraldea muga-eremu global bakarra dela esatea. Kartzela, historikoki, gizartearen barrualdea eta kanpoaldea banantzeko gunek gisa definitzen zuen, eta gogorazten zuen XVIII. mendean kartzela udaletxearen ondoan egoten zela, pertsona guztiek delitu bat egiteak zekartzan ondorioak ikus zitzaten. Baina ondoren hirien kanpoaldera eraman direla, gizartetik kanpo egotearen ideia azpimarratzeko asmoz.

Estebanek ondorioztatu zuenez, azken urteetan, kartzela garroak zabaltzen joan da eta, aldi berean, kalea, espazio publikoa, espazio instituzional bihurtu da.

Gainera, gogorarazi zuen kartzela-espazioaren bizkarroi gisa funtzionatzen duten GKEen sare osoak presoaren egoera luzatzea eragiten duela, bigarren kondena bizitzen hastearaino –horrela deitzen diote presoek–, inoiz amaitzen ez den kondena bat.

Bai mugek, bai kartzelek edo kaleek eta psikiatrikoek hiriarri eragiten diote. Hain justu, hiri mugarik gabeko leku bilakatzeko bidean. Hirien metropolizazioa dakarren mugarik gabeko espazio bilakatzeko bidean: «Espazio publikoaren galerak, lehenik eta behin, hura pribatizatzearekin du zerikusia eta, bigarrenik, espazioa instituzionalizatzearekin. Lankide batek esaten zuen moduan, kalea teilaturik gabeko erakunde bat da».

## ESPERIENTZIAREN DEUSEZTAPENA

Hiria eta lurraldea erakundeek kontrolatutako eta kudeatutako espaziotzat hartzen dituen ikuspegia Alvaro Sevilla arkitektoak duen jarreraren osagarria da. Alvarok «Hiria eta bestelako politikak» jardunaldietako

bigarren egunean parte hartu zuen. Duela bost urte, «La producción de ciudad y el eclipse de la experiencia» izeneko artikulua argitaratu zuen, egilearen ikuspegira hurbildu gintuen artikulua. Hortaz, artikuluan adierazitakoa berreskuratuz hasi zen Alvaro. Giorgio Agamben-en hiri handietako esperientzia-deuseztapenari buruzko argumentu bat hartu zuen abiapuntutzat. Pentsalari italiarrak zera esaten zuen: «Gizaki garaikideari bere esperientziaren jabetza kendu» zaionez, gaur «badakigu esperientzia deuseztatzeko ez dela beharrezkoa hondamendirik gertatzea: gizaki garaikidearen jardunaldiak ez dauka esperientziatzat har daitekeen ia ezer». Alvarok ezgaitasun hori ustekabekoa ez izatearen ideia berreskuratu zuen.

«Hiria eta bestelako politikak» jardunaldietako hitzaldirako, 2008an argitaratu zuen artikuluan marraztutako argumentuetan –bere ustez, gordin samar marraztu ere– sakondu eta horiek eguneratu nahi izan zituen.

Alvaroren ustez, mundu guztia ez da kexatzen hiri garaikidean dagoen esperientzia eskasiagatik. Gainera, gogorarazi zituen Rem Koolhaas edo Jean Nouvel arkitektoen adibideak, besteak beste. Hain justu, horiek behin baino gehiagotan “ironiaz” mintzatu dira egoera garaikide horri buruz, hiri soziala itxuragabetzen aritzen diren estatuek edo botereek enkargatutako proiektuak justifikatzeko ziur asko.

Alvarok historian sartu-irten labur bat egin zuen, hirian gertatu den «esperientzia-forma autonomoen pixkanakako gainbeheraren» zergatia zehazteko.

Horretarako, New Yorkeko auzo bateko 1900eko irudia erabili zuen. Alvaroren arabera, garai horretan, kaleak oraindik ere gizartearen «biltzaileak» ziren. Agertoki hori hiri garaikidearen eskakizunen ikuspegitik testuinguru ideal gisa erakutsi nahi izan gabe, kaleak partekatutako ezagutzaren espazio izatea eragiten duen jarduera, bizipen eta truke multzo bat agertzen da. Auzoa etxebizitzan, tabernen, saltokien eta lantegi txikien nahasketa bat zen; etxeko lanak auzoko eguneroko bizitzan ikus zitezkeen, kalea etxearen luzapena zelako; azken finean, hiriko agertokiko eguneroko gertaera zen.

Agertoki itxuraz desordenatu horrek eliteei estutasun pixka bat sortzen zien, Alvaroren tesiaren arabera, interes komunak ikusteko eta politikoki antolatzeke testuinguru egokiak zirelako.

Abangoardia arkitektonikoko proiektuak agertoki hori higienismoan eta modernitatean oinarritutako argumentuekin «garbitzeko» une egokian

agertu ziren. Masentzako auzo berriak administrazioaren ikuspegitik marketin politikoko proiektu bat izan ziren, baina batez ere, pertsonak kontrolatzeko estrategia bat.

Aurkezpena amaitzeko, Alvarok Lefebvrearen zenbait zati berreskuratu zituen, hirigintza historikoak bereizi dituen hiriaren dimentsioei buruz hitz egite aldera:

«Autogestio laburbilduz, giltza-hitza zen Henri Lefebvrearentzat. Autogestioaren bidez, hirietako biztanleek beren «hirirako eskubidea» berreskura zezaketen; hau da, egile horren ikuspegitik, ezberdin izateko eskubidea (hiriak soilik eman dezakeen konplexutasun eta autonomia) eta zentraltasunerako eskubidea, norbere bizimoduari eragiten dioten erabakiak hartzeko autonomia. Autokudeaketak egunerokoa goitik behera aldatu eta beste forma bat eman behar zion; uneak bereiziko ez zituen bat, apartekoari egunerokoa berriz ere lekua egingo zion bat. Esperientzia berriz ere obra komuna izango zen eguneroko bizitza bat, apurka-apurka sedimentatua eta beti aldaketarako prest; ez elite ekonomikoek eta politikoek banatutako produktu itxi eta iragankor bat».

## ESPAZIO PUBLIKOAREN BIR-JABETZEA

Modernitateak «gizaki modernoak» sortu eta postulatu arkitektoniko berrien bidez forma eman nahi izan zion. Alvaro Sevillak zuzen aipatzen duen moduan, ordea, modernitate- eta aurrerapen-estrategia horiek une politiko egokian agertu ziren.

Hiri-proiektuak humanizatzeko ondorengo ahaleginak museoetatik hurbilago geratu dira benetan praktikan jartzetik baino. Arkitektoen eta botereen arteko aliantza-ereduari erantzunez, orain hainbat diziplinatarako prestatutako taldeak sortzen dira, eta hiritarrek bizi diren espazioetarako nahi dituzten gizarte-eskakizunak (formalak baino gehiago) jasotzen, ordenatzen eta prozesatzen dituzte.



Yeouido at Dusk, Seul, Hego Korea, 2011. Martin Stavors.



New York-eko Mulberry kalea, 1900.

Komuna denaren, espazio publikoaren birjabetzea prozesu burokratikoetatik kanpo lantzen da. Ethel Baraonak<sup>17</sup>, «Hiria eta bestelako politikak» jardunaldian, Adhokrazia eta Burokrazia kontrajarri zituen. Ethelen arabera, erakundeak ez dira gai imajina ezin dezaketena saihesteko, motelago doaz; burokraziak erakunde-ahalmena geldiarazten du.

Jarrera berri horiek ez dira berriak; testuingurua, ordea, bai. Jean Pierre Garnier plaza publikoetan sortutako mugimendu berriekin oso kritikoa izan zen. Garnierren arabera, jende askoren gogo zera da: hiriko espazioaren jabetze kolektiboa ahalbidetzea, hirirako eskubidearen jabeen eta jabetza galdu dutenen arteko liskarrik gabe. Garnierrek ez du uste ekoizteko modu kapitalista benetan auzitan jartzen denik. Beraz, irtenbiderik gabeko bi kalezulo hartzen dira: aktibismoa eta teorizismoa.

Gaur egungo hiriko gizarte-mugimenduek ikuspuntu politikorik ez dutela kritikatzeko du. Garnierrek gogorarazten du 70eko hamarkadako hiriko borroken eraso orokorra sistema kapitalistaren aurkakoa zela. Baina Jean Pierren arabera, «burgesia intelektual txikia» izan zen borroka horien eragile nagusia eta ia-ia bakarra (Pierre Bordieuk erabilitako «burgesia txiki berria» kontzeptua maileguan hartuta), eta, gaur egun, kapitalaren urbanizazioa bere bidea egiten ari da, inoiz baino sendoago.

Klase buruzagiek hirigintza kapitalista kontrolatzen eta bultzatzen jarraitzen dute, erresistentzia defentsibo, tokiko, sektorizatu, eta askotan, epe motzekoekin.

«Hala eta guztiz ere, aktibista hirizaleek beren aktibismoa ospatzen jarraitzen dute. "Beste hiri bat posible da" errepikatzen dute, esku-hartze zehatzak birrosatze-prozesu betean dagoen hiri-biztanleriaren adierazpen gisa ospatuz. Gizarterako balio duenak hirirako ere balio duela ikusi gabe edo ikusten ez duten itxurak eginez: beste hiri kapitalista bat edo beste modu bateko hiri kapitalista bat «birrosatzen» ari dira, ez kapitalista ez den hiri bat, bereizgarri dituen klase herritarren bizkarreko akats eta huts guztiekin».

Garnierrek teorizismoari egiten dion kritikaren oinarria zera da, «campuseko erradikalismoa» deitzen duena. Zalantzan jartzen du Mike Davis, Manuel Castells edo David Harvey egileek, besteak beste, hainbat herrialdetan plaza publikoen okupazio-mugimenduei buruz unibertsitate-foetatik teorizatzea.

Garnier ez da beste egile batzuek bezain gogotsua hiriko espazioen balizko «birjabetzeari» dagokionez. Maila sinbolikotik maila zehatzago batera

igarota, Jean-Pierrek Miquel Amorós aipatu zuen eta gogorarazi zuen «erdi-mailako klaseko hirizaletasunak» ez duela lortu kapitalista menperatzaileak batere atzera egiterik.

Garnierrek eskatzen du praktika zehatzak berreskuratzea, baztertuaren ondoan jartzea, gutako asko gauden burgesia txikiaren klaseari berari traizio egitea hiriaren eraikuntzari begiratzeko benetako begiradetatik; bestela, teoriak elkarren artean elikatzen diren eztabaida arloak besterik ez ditu sortuko: «Hasten den mende honetan, kapitalismoaren krisia larritzen doan bitartean eta klase herritarren existentzia-baldintzak okerrera egiten duten bitartean, agian iritsi da unea, , berriro teoria praktikarekin lotzeko, teorizismoan eta ezer ez egiteko hitz egitean (edo idaztean) atsegin hartu beharrean. Baina, nola? Konpromisoa hartuz borroka zehatzen eremuetan, gogoeta elikatuz ekintzekin, borrokatzeko prest daudenen ondoan. Jakina, hori egin behar da ez badugu nahi gogoeta murriztea hiriko historian eragin nabarmenik ez duten nazioarteko unibertsitateko mahai-ingurueta eta biltzarretako jet set-aren diskurtso amaigabeetara».

24

## ARKITEKTURA BIRPOLITIZATZEA

Garnierrek kritikatzeko duen moduan arkitekturaren kontzientzia politikoa agertzen bada espazio publikoa asaldatzeko eta birlurraltatzeko gai direla erakutsi duten hiritarren mugimenduetatik eta ikerketa akademikoko diskurtsoetatik, une honetan arkitekturaren birpolitizazioak suposatzen duenari buruz eztabaidatu behar da.

Garnierren eskaerari praktikatik erantzun ahal zaio, Eva Morales<sup>18</sup> arkitektoak erakutsi zituenetatik, esaterako; zehazki , «korraletan» esperimentatutako prozesu kolektiboetatik abiatuta, non etxegabetutako familiak hutsik zeuden 15 eraikin okupatzera iritsi ziren, Sevillako etxebizitzaren aldeko mugimenduaren babesarekin. Espainian etxebizitzaren negozioa aurrerapenaren eta oparotasunaren bandera izan dela gogoratu, Evak adierazi zuen neurrigabeko hazkundeak berak eragin duela hiria «desprogramatu» izana.

Hiria berriz programatzeko beharrezkoa da premiak eta gutxiegi erabilitako baliabideak lotzea, eta, beraz, etxebizitza hutsak aukera bat dira auto-antolakuntza.

Eva Moralesek azaldu zuen «Hiria eta bestelako politikak» jardunaldian Sevillako Utopia korralaren lehen osaera. Etxebizitza bat lortzeko zailtasunak zituzten 36 familia ziren eta familia horiek antolatu egin ziren beraiena egiteko beren eskubidea zutena. Ildo horretan, Evak eskatzen zuen etxebizitzaren kultura eta haren jabetzea ikaskuntza kolektiboko prozesu eta denboran garapen gisa. Bizi izatea prozesu amaigabe eta denboran hobetzen doana den gisa.

Bestalde, akademiatik, Delft unibertsitateko «Design as politics» katedra aurkezten da gobernuak sustatutako esperientzia eta ikerketa-espazio gisa, arkitekturaren ikaskuntzak jarrera bat izan dezan politikatik. Marta Relats<sup>19</sup> arkitektoak parte hartu zuen «Hiria eta bestelako politikak» jardunaldian, eta katedrako ikasleen premisak eta azken lanak azaldu zituen. Arkitektura-ikasleak behar duen ikaskuntza defendatu zuen Martak ekonomiaren gainetik. Galdera zera izango litzateke, arkitekturaren irakaskuntzan edo eraikuntza komunean ekonomiaren zer definizio aplikatu beharko genukeen gaur egun.

25

## IRUDIKAPENAREN AURKA,PERFOR- MANCE ARINA

Bergerrek aipatzen zuen irudikatuaren matxinada, espazio publikoaren birjabetza eta «hiri eskubidea» bera «artibismoen» eta politika parte-hartzailez mozorrotutako beste prozesu batzuen moduan karikatura bihurtzeko arriskuan dagoela.

Esteban Zamoraren arabera, estatuaren desfragmentatzetik aurrera, parte-hartzea bezalako gailuak erabiltzen hasten dira:

«Foucault filosofoak 1980ko hamarkadan gobernamentalitatea deiturikoa gobernantza deitzen da gaur egun. Baina ez da ahaztu behar estatuaren



Claude Dityva, "478-37-MAI 68-Verité révolutionnaire,"



Garagar soroa, Madrid.

hegemonia ezartzeko akordiorik ez dagoenean, gobernantzaren benetako aurpegia dela orduan udal-ordenantza. Neure buruari galdetzen diot parte-hartzea benetan eraginkorra den edo hiriko espazioa demokratikoki eraikitzeko benetako aukerak burutik kentzeko gailu bat besterik ez den».

Topaketa asko, ekintza labur ugari eta arkitektura-foro edo -azoka kolektiboak instituzionalizatzeko arriskuan daude, «alternatiboa» denaren onarpena eta estetizazioa erakusteko beste behin ere.

Sistemak zapaldu egiten du egitura politikoak aldatzeko asmorik ez duen ekintza oro. Ekimen guztiak hiri-performace gisa zehazten dira eta argitaratu egiten dira elite arkitektonikoen argitaletxeen atseginerako edo sariak jasotzen dituzte ongi usteko hirigileek zuzendutako bienaletan.

Ildo horretan, Manuel Delgadok aipatu zuen plaza publikoetan gertatutako aldaketen gogo politiko gabezia 2013an argitaratutako «El activismo y la mística ciudadanista del espacio público»<sup>20</sup> artikuluan. Delgadok kritikatu egiten du "protesta jai bihurtzea" plazen okupazioan:

«... benetako superproduzio artibisten gisa funtzionatu dute, eta bere egin dute klaseen borroka gainditzearen proiektu pospolitikoa, paradigma berriek ematen dutenaren arabera; horiek ez dira, ordea, errepublikanismo burges zaharraren aldaketak besterik, eta harentzat espazio publikoa ez litzateke izango bere kontzeptu eratorrietako baten espazializazio fisikoa besterik: gizarte zibila deiturikoa».

Delgadok kritikutzen duena zera da, protesta-mugimenduen despolitizazio arduragabea. Bere testuan gogoratzen du 1960ko hamarkadan gertatu zenaren paralelotasuna, eta nola Wolfgang Harich<sup>21</sup> egileak erantzule egiten zituen «hein handi batean» Fankfurteko eskolako teorikoei lotzea «presazko doktrina bat sortzea, non oinarri ideologiko liberala moztaratu egiten zen itxura erradikaleko nabarmenkeriekin».

## NOSTALGIA, GUZTIAREN AZPITIK

Plaza publikoetan egindako azken «ekitaldiek» behartzen dute gaur egungo egoera eta 1960ko eta 1970eko hamarkadetakoa alderatzea.

Arestian aipatutako artikuluan, Manuel Delgadok alderaketa hori egiten du une hartan eraikitako kritika berreskuratzeko; beste kasu batzuetan, alderaketak ariketa estilistiko hutsetan gera daitezke.

Azpimarratzekoa da, Garnierrek gogorarazten zuen moduan, Pariseko 1960ko «aktibista» asko direla orain estatuaren prozesu eta egitura kapitalisten «diseinatzaileak».

Onar dezakegu bai 1960ko hamarkadan bai orain asmoa dagoela komunitate prozesuak eraikitzeko. Proiektuak komun, bizitzarako leku gisa bizi izandako espazioek osatuko dituztenak.

Baina orduan ere izan ziren abisuak honako honi buruz: hasitako ekintzen benetako helburuak zein ziren. Internacional Situacionista erakundeak 58. urtean aurreratu zituen hiriri beste era batera begiratzea sustatzera eramaten zuten arrazoiak kapitulu honi izena ematen dion izenburu berarekin argitaratutako argitaratze-ohar batean, «La nostalgia por debajo de todo»<sup>22</sup> alegia:

«Zein da gure helburua? Egoerak sortzea. Ez dago zalantzarik garai guztietan pertsonak zuzenean ingurunean esku hartzen ahalegindu direla bizitzaren uneren batean. Pentsatzen dugu soilik bitartekoak biltzen zirela modu bakartu eta partzialean egiten jarraitzen ziren eraikuntza horiek kuantitatiboki eta kualitatiboki zabaltzeko. Erljioa, eta ikuskizun artistikoa gero, nahi hori betetzeko ezgaitasuna arindu zuten bi eratorri izan ziren. Eratorri horien desagerpen-mugimendua, erraz frogatu daitekeena, antzeko dabil munduaren garapen materialarekin eta zentzurik zabalenean ulertu behar da hori. Egoeren eraikuntza ez da zuzenean energia atomikoaren mendekoa; ezta gizarte iraultzarena edo automatizazioarena ere; izan ere, esperientziak has daitezke etorkizunak zalantzarik gabe egin behar dituen baldintza batzuen faltan».

Hau da, eraikuntza situazionistak eurak aldentzen dira gizarte iraultzatik. Aldi baterako ekintza arruntak sortu nahi al zituzten orduan, performance labur batena baino eragin handiagoa utzi gabe?

Bigarren mundu-gerraren ondorengo hamarkaden irakurketa berri batek jarrera kritiko berri bat sor dezake proposamen erradikalak ulertzeko. Hain zuzen aurreko mendeko, 60ko eta 70eko hamarkaden arteko, egoeren eraikuntza, kaleko borroka, teoria askoren iturri eta komunitate-garapenerako zenbait adibide bihurtu ziren.

Ba al dago aukerarik urte haietan jazotako komunitate-garapenen esperientziak berreskuratzeko eta gaur egun gaurkotasunarekin konpara daitekeen elementutzat edo ebaluazio-tresnatzat balio izateko?

Landa-hiria harremana da eztabaidaren antzezlekua berriro. Aurreko esperientzietan landa izan zen proposamen erradikalenen babesak edo irteera balbula. Hiritik egindako ihesak, ordea, ez zion onurarik ekarri hari, ezta finkatu ziren lekuei ere.

Drop City esperientziak hiriz kanpoko askatasunaren idealizazioarekin zerikusia duten esperimentazio komunalekin lotuta geratu ziren.

Eta baliteke hamarkada haiek geratu izana dagoeneko erosotasunetik iraganera begiratzen duen asaldura baten kontsumo-irudi arrunt gisa.

Esan dezakegu gaur egun hiria bizikidetzarako espazioa dela bereziki eta ekintza-leku estrategiko bihurtu dela.

Hiri-komunen garapen-esperientziak eta komunitate-eraikuntzak, hirietako auzoetan gertatzen dira. Gaur egun, ez dago ihesik, oraingoz.

- 1 «Hiria eta beste politika batzuk», Salaberriak eta Manu Fernándezek koordinatu zuten eta jarraipena eman zioten Transitoak proiektuarekin Tabakalerak hasi zuen gogoeta-ildoari. Horren lehen jarduera Egian erabilerarik gabe zeuden espazioen mapaketa kolektiboa izan zen eta 2013ko ekainean egin zen. <http://www.tabakalera.eu/es/programa/semana-de-la-arquitectura-ciudad-y-otras-politicas-herencias-territorios-y-construcciones-comunes/>
- 2 Jill Stoner, *Toward a minor architecture*, The MIT Press (2012)
- 3 Jean Pierre Garnier Parisko Ikasketa Politikoen Institutuko titulua dauka eta doktorea da hiri-soziologian eta hirigintzan.
- 4 Jean Pierre Garnier, *Contra los territorios del poder*, Virus editorial (2006) <http://www.viruseditorial.net/pdf/Contra%20los%20territorios%20del%20poder.pdf>
- 5 Pier Vittorio Aureli, *More money/Less work: Archizoom. The Italian Avant-garde 1968-1976*, Stenberg Press, (2013)
- 6 Alvaro Sevilla Buitrago arkitektoa-hirigilea da eta Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko irakaslea. Gainera, Urban hiriko ikerketari eta teoriari buruzko aldizkariaren koeditoria da. <http://multiplicidades.org/>
- 7 n'UNDO kritikan, eztabaidan eta gogoetan oinarritzen da, eta hortik abiatuta garatzen du bere oinarri teorikoa; oinarri horren ondorio dira hainbat hiri-eta lurralde-praktika eta -jarduera, parte-hartzean eta diziplina aniztasunean oinarrituta. <http://www.nundo.org/>
- 8 Zaida Muxí eta Josep María Montaner, *Arquitectura y Política*, Editorial Gustavo Gili, (2013)
- 9 Martí Peran, *After architecture*, ACTAR (2009)
- 10 Macba, *La condición del documento y la utopía fotográfica moderna* mintegia, (2008). <http://www.macba.cat/es/la-condicion-del-documento-y-la-utopia-fotografica-moderna>
- 11 The Funambulist Léopold Lambert egileak editatutako ikerketa-espazio bat da. <http://thefunambulist.net/>
- 12 Gastón Gordillo antropologoa da eta British Columbia Unibertsitateko irakaslea. <http://spaceandpolitics.blogspot.com>
- 13 Beatriz Colomina, *Privacidad y publicidad. La arquitectura moderna como medio de comunicación de masas*, Cendeac (2004)
- 14 John Berger, *El tamaño de una bolsa*, Taurus (2004)
- 15 Elisabeth Roig, *The walls of empire*, *Estudios de filosofía práctica* (online), (2006). [http://www.scielo.org.ar/scielo.php?script=sci\\_abstract&pid=S1851-94902006000100012&lng=en&nrm=iso&tlng=en](http://www.scielo.org.ar/scielo.php?script=sci_abstract&pid=S1851-94902006000100012&lng=en&nrm=iso&tlng=en)
- 16 Esteban Zamora filosofoa irakaslea izan da Hezkuntza Zientzien Metropoli Unibertsitatean (Txile). Txileko ARCIS Unibertsitatean Filosofiako lizentzia lortu zuen eta Bartzelonako Unibertsitateko Filosofia Fakultateko Subjektibotasunaren Historia doktoregoko ikaslea da.
- 17 Ethel Baraona Arkitektoa editorea eta komisarioa da. Dpr-Barcelona argitaletxe independenteko sortzaile kide da eta Quaderns aldizkari editore. Bere lan profesionala Bartzelonan garatzen du aldizkeri ezberdinei lotua 2002tik
- 18 Eva Morales arkitektoa da. Malagako unibertsitateko proiektuak saileko irakasle elkartua. Ingurugiroari aplikatutako ikerketa sozialean masterra UPOn. Hirugarren mundu asentamentuen garapenerako kooperazio espezializazioa UPMn.
- 19 Marta Relats arkitektoa da (MSc, TU Delft) eta filosofian lizenziatua (MPhil, UB Barcelona). 2010tik Prof. Dr. Wouter Vanstiphout-ek zuzentzen duen Design as Politics katedrako ikerketa zuzendari eta irakalsea da Delft-en.
- 20 Manuel Delgado, "El activismo y la mística ciudadanista del espacio público". <http://manueldelgadoiz.blogspot.com.es/2013/07/el-activismo-y-la-mistica-ciudadanista.html>
- 21 Wolfgang Harich filosofoa, kazetaria eta literatura kritikari alemana izan zen. Bere "¿Comunismo sin crecimiento?" obragatik Eko-sozialismoaren eta deshazkundearen teorien aintzindari konsideratzen da
- 22 Nota editorial del # 2 de Internationale Situationniste (2-XII-58). Traducción extraída de Internacional situacionista, vol. I: La realización del arte, Madrid, Literatura Gris, 1999



ARGITARATZAILEA  
Tabakalera  
(Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa)

TESTUA  
Ibon Salaberria

ITZULPENAK  
Maramara\* taldea

TESTUEN ORRAZKETA  
Ibon Salaberria, Jose Luis Padrón

ARGITALPENAREN KOORDINAZIOA  
Nere Lujanbio, Naiara Uranga

DISEINUA  
Gorka Eizagirre

IMPRIMAKETA  
Artes Graficas Lorea S. L.

L. G.  
SS-1223-2014

ISBN  
978-84-617-2058-3